

**OGASUN ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
GARRAIO
ETA HERRI LAN SAILA**

6423

420/2005 DEKRETUA, abenduaren 20koa, «Jaizkibia SA» sozietate anonimoa sortu eta partaidetza eskuratzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari baimena emateko dena.

Euskadiren Ondareari buruzko uztailaren 27ko 14/1983 Legearen 44.1 artikulua araber, Euskal Autonomia Erkidegoak sozietate publikoak sortu eta partaidetzak erosteko, Jaurlaritzak dekretu baten bidez emandako baimena beharko du, betiere, Ekonomia eta Ogasun sailburuak eta arazoaren ardura duen saileko buruak batera proposaturik.

Jaizkibia SA sozietate anonimoa eratzekeo faseari dagokionez, sortzeko eta partaidetza izateko interesa dute ondokoek: administrazio hau, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia-San Sebastiángo Udala, Pasaia Udala, Lezoko Udala, Errenteriako Udala, Oiartzungo Udala, Hondarribiko Udala, Irungo Udala eta Estatutuko Administrazio Orokorra. Eta sozietate horren helburu bat hauxe da: Bidasoa Behea, Jaizkibelgo Korridore Intermodala eta Pasaialdearen eremu geografikoan, arlo sozioekonomikoa eta ingurumenarena hobetzeko eta hirigintzaren berrikuntza integrala egiteko, besteak beste, azpiegiturak eta hirigintza-jarduketak planifikatu eta gauzatzeari dagokionez, azterlanak, egitasmoak eta proiektuak egitea. Bestalde, sozietatearen helburuak dira hauek ere: aipatu jarduketak garatzeko kudeaketa-tresnak sortzea, eta Jarduketan Plan Integralaren eta Lurralde-ereduaren Eskema Zuzentzailearen ondoriozko jardueretan zuzenean parte hartzea zein jarduerok gauzatea.

Horiek horrela, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren eta Garraio eta Herri Lan sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko abenduaren 20an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe,

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Jaizkibia SA sozietatea sortzeko eta partaidetza izateko baimena ematen zaie ondokoei: administrazio hau, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia-San Sebastiángo Udala, Pasaia Udala, Lezoko Udala, Errenteriako Udala, Oiartzungo Udala, Hondarribiko Udala, Irungo Udala eta Estatutuko Administrazio Orokorra. Eta sozietate horren helburu bat hauxe da: Bidasoa Behea, Jaizkibelgo Korridore Intermodala eta Pasaialdearen eremu geografikoan, arlo sozioekonomikoa eta ingurumenarena hobetzeko eta hirigin-

**DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES
Y OBRAS PÚBLICAS**

6423

DECRETO 420/2005, de 20 de diciembre, de autorización a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi para la creación y adquisición de participaciones en la sociedad anónima «Jaizkibia, S.A.»

El artículo 44.1 de la Ley 14/1983, de 27 de julio, de Patrimonio de Euskadi, establece que la creación y la adquisición de participaciones de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en sociedades de cualquier clase deberán ser autorizadas por Decreto del Gobierno Vasco, a propuesta conjunta del Consejero de Economía y Hacienda y del titular del Departamento directamente interesado.

Esta Administración está interesada, junto con la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, el Ayuntamiento de Pasaia, el Ayuntamiento de Lezo, el Ayuntamiento de Errenteria, el Ayuntamiento de Oiartzun, el Ayuntamiento de Hondarribia, el Ayuntamiento de Irun y la Administración General del Estado, en la creación y participación en la sociedad anónima en fase de constitución Jaizkibia, S.A., cuyo objeto se centra en la realización de estudios, planes y proyectos en relación con la planificación y ejecución de actuaciones urbanísticas, sobre infraestructuras y, en general, de cualesquiera otras actuaciones destinadas a la renovación integral urbana y a la mejora de la calidad ambiental y socioeconómica en el área geográfica de Pasaialdea, el Corredor Intermodal del Jaizkibel y el Bajo Bidasoa, así como la creación de instrumentos de gestión para el desarrollo de las referidas actuaciones y la participación directa y la ejecución de las acciones derivadas del Esquema Director del Modelo Territorial y del Plan Integral de Actuaciones.

En su virtud, a propuesta de las Consejeras de Hacienda y Administración Pública y de Transportes y Obras Públicas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en sesión celebrada el día 20 de diciembre de 2005,

DISPONGO:

Artículo 1.— Se autoriza la participación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la creación y en la adquisición de participaciones de la sociedad anónima Jaizkibia, S.A., junto con la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, el Ayuntamiento de Pasaia, el Ayuntamiento de Lezo, el Ayuntamiento de Errenteria, el Ayuntamiento de Oiartzun, el Ayuntamiento de Hondarribia, el Ayuntamiento de Irun y la Administración General del Estado, cuyo objeto se centra en la

tzaren berrikuntza integrala egiteko, besteak beste, azpiegiturak eta hirigintza-jarduketak planifikatu eta gauzatzeari dagokionez, azterlanak, egitasmoak eta proiektuak egitea. Bestalde, sozietatearen helburuak dira hauek ere: aipatu jarduketak garatzeko kudeaketatresnak sortzea, eta Jarduketan Plan Integralaren eta Lurralde-ereduaren Eskema Zuzentzailearen ondoriozko jardueretan zuzenean parte hartzea zein jarduerok gauzatzea.

2. artikulua.— Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, aipatu sozietate anonimoaren kapitalean, hasieran, izango duen partaidetza milioi bat (1.000.000) eurokoa izango da, eta horrek sozietatearen kapitalaren % 25 egiten du, izan ere, guztizko kapitala lau milioi (4.000.000) eurokoa baira.

Sozietatea eratzean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak harpidetzen dituen akzioen nominala guztiz ordaintzeko baimena ematen da.

3. artikulua.— Sozietate anonimoan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak dituen eskubideak Garraio eta Herri Lan sailburuordeak baliatuko ditu.

4. artikulua.— Ondare eta Kontratazio zuzendariari eta Garraio eta Herri Lan sailburuari baimena ematen zaie, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izenean, ondoko ekintzetan parte hartzeko: sozietatea eratzeako eskritura publikoa ematea; sozietatearen estatutuak onartzea; izendatu eta gero, administrazio-kontseiluko kide eta kargudunen izendapena formalizatzea; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari doazkion akzioak harpidetu era ordaintzea; eta sozietatea eratzeako beharrezko diren dokumentu publikoak zein pribatuak ematea.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko abenduaren 20an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Garraio eta Herri Lan sailburua,
NURIA LÓPEZ DE GUEREÑU ANSOLA.

realización de estudios, planes y proyectos en relación con la planificación y ejecución de actuaciones urbanísticas, sobre infraestructuras y, en general, de cualesquiera otras actuaciones destinadas a la renovación integral urbana y a la mejora de la calidad ambiental y socioeconómica en el área geográfica de Pasaialdea, el Corredor Intermodal del Jaizkibel y el Bajo Bidasoa, así como la creación de instrumentos de gestión para el desarrollo de las referidas actuaciones y la participación directa y la ejecución de las acciones derivadas del Esquema Director del Modelo Territorial y del Plan Integral de Actuaciones.

Artículo 2.— La participación inicial de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el capital social de la mencionada sociedad anónima será de un millón (1.000.000) de euros, equivalente al 25% del capital social, que será de cuatro millones (4.000.000) de euros.

Se autoriza la realización del desembolso íntegro del nominal correspondiente a las acciones que se suscriben por la Administración de la Comunidad de Euskadi en el momento de constituirse la sociedad.

Artículo 3.— Los derechos de socio, que a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi correspondan en la sociedad anónima, serán ejercitados por la Consejera de Transportes y Obras Públicas.

Artículo 4.— Se faculta al Director de Patrimonio y Contratación y/o a la Consejera de Transportes y Obras Públicas para concurrir, en nombre de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, al acto de otorgamiento de la escritura pública de constitución de la sociedad, aprobación de los estatutos sociales y formalización de la designación de los cargos y miembros del Consejo de Administración, una vez hayan sido designados, así como para materializar los desembolsos y aportación necesarios para la suscripción y cobertura del importe de las acciones atribuidas a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y extender cuantos documentos públicos y privados sean precisos para la constitución de la sociedad.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto surtirá efectos desde el día de su aprobación.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 20 de diciembre de 2005.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

La Consejera de Transportes y Obras Públicas,
NURIA LÓPEZ DE GUEREÑU ANSOLA.